



TOLOSAKO
UDALA

GOBERNU BATZARRA

2018.04.23

Alkatea:

Olatz Peon Ormazabal

Zinegotziak:

**Patxi Amantegi Zubiria
Nerea Letamendia Belloso
Jokin Azkue Arrastoa
Iñigo Alonso Sarasibar**

Tolosako Udaletxean, bi mila eta hemezortziko apirilaren hogeita hiru, 08:00etan, Tokiko Gobernu Batzarra bildu da ohiko bilera egiteko. Mahaiburua alkatea izan da, eta alboko zinegotziak agertu dira, eguneko gai-zerrenda aztertzeko.

1. **Aurreko akta onartzea.**

2. **Ekintzaileen Coworking Oriaburu gunean sartzeko 2018ko deialdia onartzea eta deialdi publikoa egitea.**

3. **85/2017, 86/2017, 14/2018, 15/2018 eta 16/2018 faktura-zerrendak.**

Idazkaria:

Begoña Garmendia Vazquez

Kontuhartzailea:

Ainhoa Molinos Zubiaurre

1. AURREKO AKTA ONARTZEA.

Alkateak bilerari hasiera eman ondoren, 2018ko apirilaren 16an egindako batzarraren akta aztertu dute. Batzarkideek aho batez onartu dute akta.

2. EKINTZAILEEN COWORKING ORIABURU GUNEAN SARTZEKO 2018KO DEIALDIA ONARTZEA ETA DEIALDI PUBLIKOA EGITEA.

I. Coworking (kolana) lan egiteko modu bat da, profesional independenteei, ekintzaileei eta sektore desberdinetako enpresa txiki eta ertainei lanerako gune bera, fisiko nahiz birtuala, partekatzeko aukera ematen diona, beren proiektu profesionalak modu independentean gara ditzaten, proiektu komunak sustatzen dituzten bitartean.

Coworking-ak sustatzen ditu sektore desberdinetako profesionalen arteko harreman egonkorak, eta harreman horiek bezero-hornitzaile arteko harreman bihur daitezke azkenean. Nolanahi ere, ohikoa da erkidego bateko kide izateko sentimendua sortzea, lotura eraginkorretatik harantzago, coworking-guneetara maiz joaten diren langileen artean.



TOLOSAKO
UDALA

Coworking-ak irtenbide bat eskaintzen dio etxean lan egiteko esperientziak langile independente askori, edo mikroenpresei ere bai, sortzen dien bakardade-arazoari.

II. Aurrekari hauek ikusirik Tolosako Udalak honelako programa bat martxan jartzeko ordenantza bati ekin zion eta behin betiko Ekintzaileen Coworking-erako Oriaburu gunea arautu zuen, eta Ordenantza hau 2017ko ekainaren 27ko Osoko Bilkuran onartu zen.

III. 7/1985 Legeak, apirilaren 2koak, Toki-araubideren oinarriak arautzen dituenak, bere 49.artikuluko b eta c puntuetan dioen bezala egin zen jendaurreko ("*b) Gutxienez 30 egunean jendaurrean jarrita izatea eta interesdunei entzunaldia ematea, erreklamazioak eta iradokizunak aurkez ditzaten. c) Epe barruan aurkeztutako erreklamazio eta iradokizun guztiak erabakitzea eta osoko bilkurak behin betiko onarpena ematea.*"), eta erreklamaziorik gertatu ez zenez, 2017ko urriaren 9an aipatutako Ordenantza GAOn argitaratu zen.

IV. Epe bat igarota eta gauzatu baino lehen, argitaratutako ordenantzako testuak akats eta zehaztugabetasunak zeuzkala ikusirik, zerbitzu juridikoen aipamen eta aholkuei jarraituz, zerbitzu honek testu bategina osatu du (eranskina).

V. Programa hori martxan jartzeko dauden interes sozialeko arazoak eta premia direla eta, proposatzen da testu bategina osatzea, helburu izanik programa honetan parte hartu nahi duten interesatu guztiei lehenbailehen aukera eman ahal izatea.

VI. 7/1985 Legeak, apirilaren 2koak, Toki-araubidearen oinarriak arautzen dituenak, bere 22.2. artikuluan xedatutakoaren arabera, proposatzen da, testu bategina hurrengo Osoko Bilkurako gai-zerrendan sartzea, bere onarpena lortzeko.

VII. Udalbatzarrak, 2018ko otsailaren 27an egindako Osoko Bilkuran, Ekintzaileen Coworking-erako Oriaburu gunea arautuko duen Ordenantzaren Testu Bategina onartu ondoren, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen 2018ko martxoaren 21ean.

VIII. Argitalpenetik 15 egun igarota eta aipatutako Ordenantzaren Testu Bateginaren 6. artikulua aipatzen duen bezala, Gobernu Batzordeari proposatzen zaio deialdia onartzea.

Hori horrela, udal teknikariak egindako proposamena aztertu ondoren, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

ERABAKI DU

LEHENA.- Ekintzaileen Coworking Oriaburu Gunean Sartzeko 2018ko deialdia onartzea eta ondorengo deialdi publikoa egitea:



Iragarkia

Tolosan, Coworking Oriaburu gunean sartzeko 2018ko deialdia

1. artikulua. Helburua

Deialdi honen helburua da Ekintzaileen Coworking Oriaburu Gunera sartzeko arauak erregulatzea. Helbide hau du guneak: Oriaburu zentroa, Pedro Tolosa pasealekua 2, 20400 Tolosa.

Deialdi honetan jasotako neurrien helburua da Tolosan kokatu nahi duten enpresa-proiektuen eta startupen sustatzaileei, enpresei eta profesionalei laguntzea, eta bai indarrean dauden hitzarmenak dituzten prestakuntza ikastetxeetako ikasleei ere, euren enpresa jarduera eta/edo hazteko gaitasuna duten proiektu berritzaile berriak gara ditzaten. Horretarako, Enpresentzako Udal Eremu hau eskaini zaie euren proiektuak kokapen eta ingurune egokian gara ditzaten, ingurune lehiakorrean bizirik irauteko behar adinako trebetasun eta ezagutzekin merkatura irteteko aukera emango dien heldutasun maila lortu arte.

Coworking Oriaburu gunearen sarrera tramitatuko da bat etorrita Tolosako Udalak gune hori arautzeko onartu duen Ordenantzarekin — Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratua, 2017ko urriaren 9an, 193. zenbakian — eta bat etorrita akats zuzenketaren testuarekin — Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratua 2018ko martxoaren 21ean, 57. zenbakian —.

2. artikulua. Onuradunak.

- Enpresa berri bat sortzeko proiektua aurkezten duten ekintzaileak.

- Izaera estrategikoko proiektuak sustatzen dituzten pertsona juridikoak, jada eratuta dauden enpresen proiektu estrategikoak edo martxan jarri baino lehenagoko fasean daudenenak. Haien iraupen mugatuko emakida-kontratu bereziak ezarriko dira, unean uneko beharrezan araber eta tokia erabilgarri dagoen aintzat hartuta.

- Unibertsitateetako eta Lanbide Heziketako ikastetxeetako ikasleak, ekonomia arloarekin

Anuncio

Convocatoria para el 2018 de acceso al Espacio Coworking Oriaburu del municipio de Tolosa.

Artículo 1. Objeto.

El objeto de la presente convocatoria es regular el acceso del Espacio Coworking Oriaburu para el emprendizaje, en centro Oriaburu sito en Pedro Tolosa pasealekua 2, 20400 Tolosa.

Las medidas contenidas en esta convocatoria tienen la finalidad de apoyar la promoción de proyectos empresariales y startups, a las empresas y profesionales, así como al alumnado perteneciente a centros de formación con convenios en vigor, que deseen ubicarse en Tolosa para el desarrollo de su actividad empresarial y/o para el desarrollo de nuevos proyectos innovadores con potencial de crecimiento, poniendo a su disposición este Espacio Empresarial Municipal, para que desarrollen sus proyectos en una ubicación adecuada y en un entorno propicio hasta alcanzar el grado de madurez que les permita salir al mercado con destrezas y conocimientos suficientes para sobrevivir en un entorno competitivo.

El acceso se tramitará de conformidad con la Ordenanza Reguladora de Espacio Coworking Oriaburu para el Empredizaje del Ayuntamiento de Tolosa publicada en el Boletín Oficial de Gipuzkoa nº 193, del 9 de octubre del 2017, y de la corrección de errores publicado en Boletín Oficial de Gipuzkoa nº 57, del 21 de marzo del 2018.

Artículo 2. Personas Beneficiarias.

- Emprendedoras/es que presenten un proyecto de creación de una nueva empresa.

- Personas jurídicas promotoras de proyectos de carácter estratégico, pudiéndose ser proyectos de empresas constituidas o en fase previa a la puesta en marcha, con las que se establezcan contratos de concesión de duración determinada, en función de necesidades puntuales y de la disponibilidad de espacio en el centro.

- Alumnado de Universidades y centros de Formación Profesional que estén



TOLOSAKO
UDALA

lotutako ekimenak garatzen edo euren profil profesionala arlo horrekin lotutako lanbide prestakuntzetara bideratzen ari direnak.

Horiek guztiak berritzaileak diren eta merkatu orokor batera bideratzen diren produktuen eta zerbitzuen eskaintza izan behar dute edo horretara bideratuta egon behar dute.

3. artikulua. Dekribapena, Kokapena eta Zerbitzuak.

Ekintzaileen Coworking Oriaburu Gunea Oriaburu eraikineko 1. solairuan egongo da, Pedro de Tolosa 2 pasealekuan, 20400 Tolosa.

Lanerako gune bat okupatzea, emakida bidez, Ekintzaileen Coworking Oriaburu Guneako inkubagailuan. Erabiltzaileek izango dituzte mahaia, aulkia, interneterako sarbidea —Udalak herritarrei eskaintzen dien wifi-sare publikoaren bidez—, funtzio anitzeko inprimagailua, eta sarbidea eraikineko gune komunitarioa: bilera-gelak, erabilera anitzeko gelak eta officea. Emakidadunek Tolosako Udalari eskatu ahal izango diote ahotsa eta telekomunikazio-datuak igortzeko bere linea propioa kontratatzea.

- Lehentasunezko sarbidea zentroan programatuta dauden enpresa-proiektuekin lotutako dinamika, erakustaldi, foro eta beste dinamizazio-jarduerak batzuetarako guneetara.

- Proiektuaren tutoretza-zerbitzu baterako sarbidea, barne egon litekeelarik Tolosako Udalak, eskualdeko garapen agentzia Tolosaldea Garatzen S.Aren lankidetzarekin, enpresen sorkuntzari zein lehiakortasunaren hobekuntzari laguntzeko erabiltzaileen eskura jartzen dituen programa eta zerbitzu desberdinetara sartzeko aukera ere.

4.artikulua. Egonaldiaren iraupena.

Ekintzaileen Coworking Oriaburu Guneako gutxienezko egonaldia 6 hilabetekoa izango da eta, gehienez, 3 urtera luzatu ahal izango da.

5.artikulua. Kanona.

desarrollando iniciativas o estén enfocando su perfil profesional hacia cualificaciones profesionales relacionadas con el ámbito de la economía.

Todas estas personas deben contar o estar orientadas a la oferta de productos y servicios que tengan carácter innovador, que estén dirigidos a un mercado global.

Artículo 3. Descripción, ubicación y servicios.

El Espacio Coworking Oriaburu para el emprendizaje dispondrá para sus actividades de la planta primera del Edificio Oriaburu, sito en Pedro de Tolosa pasalekua 2, 20400 Tolosa.

Ocupación, en régimen de concesión, de un espacio de trabajo en la incubadora Espacio Coworking Oriaburu para el emprendizaje. Las personas usuarios dispondrán de mesa, silla, conexión a internet a través de la red wifi pública que el Ayuntamiento ofrece a la ciudadanía, servicios de impresora multifunción, así como acceso a los espacios comunes del edificio: salas de reuniones, salas multiusos, office. Las personas concesionarias podrán solicitar al Ayuntamiento de Tolosa la contratación de su propia línea de voz y datos de telecomunicaciones.

- Acceso preferente a los espacios para dinámicas, demostraciones, foros y otras actividades de dinamización relacionadas con los proyectos empresariales y que estén organizadas en el centro.

- Acceso a un servicio de tutorización del proyecto, que pondrá incluir el acceso a los diferentes programas y servicios de apoyo a la creación y mejora competitiva de empresas que el Ayuntamiento de Tolosa, en colaboración con la agencia de desarrollo comarcal Tolosaldea Garatzen S.A. ponen a disposición de las personas usuarias.

Artículo 4. Duración de la estancia.

El período mínimo de estancia en Espacio Coworking Oriaburu para el emprendizaje será de 6 meses y podrá prorrogarse hasta un máximo de 3 años.

Artículo 5. Canon.



TOLOSAKO
UDALA

Hilero ordaindu behar den kanona pertsonako eta laneko modulu-gune bakoitzeko: 50 euro.

El canon a satisfacer mensualmente será de 50 euros por módulo-espacio de trabajo y persona.

6. artikulua. Eskieren aurkezpen epea eta lekua.

Artículo 6. Lugar y plazo de presentación de solicitudes.

Udaletxeko udal erregistroan, 40 egun balioduneko epean, GAOn argitaratu eta biharamunetik kontatzen hasita.

En el registro municipal del Ayuntamiento, en el plazo de 40 días hábiles desde el día siguiente a la publicación en el B.O.G.

7. artikulua. Dokumentazioa.

Artículo 7. Documentación.

Eskierak termino eta baldintza guztietan egoki eta ondo beteta aurkeztu beharko dira, eta gehitu beharko zaizkio deialdi honek eta Ordenantzaren Testu Bateginaren 7. atalak adierazten dituen nahitaezko dokumentu guztiak.

Las solicitudes deberán presentarse conforme al modelo de solicitud que se acompaña a esta convocatoria. Junto a la solicitud deberá presentarse la documentación establecida en punto 7 del Texto Refundido de la Ordenanza Reguladora de la presente convocatoria.

8. artikulua. Ebazpena eta jakinarazpena.

Artículo 8. Resolución y notificación.

Prozeduraren ebazpena interesatuei jakinaraziko zaie, eta dagokien emakida-kontratua sinatzeko epearen berri emango zaie. Ebatzi eta jakinarazteko gehieneko epea: 6 hilabete.

La resolución será comunicada a las personas interesadas, indicándoles en su caso, el plazo para la firma del contrato de concesión. Plazo máximo para resolver y notificar: 6 meses.

9. artikulua.

Artículo 9.

Deialdi honetan xedatzen ez den guztian, Ordenantza Erregulatzailaren Testu Bateginean araututakoa aplikatuko da.

En todo lo no especificado en esta convocatoria, se aplicará lo señalado en el Texto Refundido de la Ordenanza Reguladora.

Tolosa, 2018ko apirilaren 16a

ALKATEA

Olatz Peon Ormazabal

BIGARRENA.-Deialdia ondorengo hauetan argitaratzea: Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, Tolosako Udaleko web orrian eta Gardentasun atarian.

HIRUGARRENA.- Erabaki honen berri ematea interesdunei, Kontuhartzaitzari eta Enplegu Departamentuari.

3. 85/2017, 86/2017, 14/2018, 15/2018 ETA 16/2018 FAKTURA-ZERRENDAK.

Kontuhartzaitzak **85/2017** faktura-zerrenda aurkeztu du, **500,00 €**-koa.



TOLOSAKO
UDALA

Hortaz, zerrenda azterturik, Gobernu Batzar honek, aho batez, eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

ERABAKI DU

LEHENA.- **85/2017** faktura-zerrenda onartzea.

BIGARRENA.- Onarpenaren berri ematea Kontuhartzaitzari.

.....

Kontuhartzaitzak **86/2017** faktura-zerrenda aurkeztu du, **4.664,31€**-koa.

Hortaz, zerrenda azterturik, Gobernu Batzar honek, aho batez, eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

ERABAKI DU

LEHENA.- **86/2017** faktura-zerrenda onartzea.

BIGARRENA.- Onarpenaren berri ematea Kontuhartzaitzari.

.....

Kontuhartzaitzak **14/2018** faktura-zerrenda aurkeztu du, **93,22 €**-koa.

Hortaz, zerrenda azterturik, Gobernu Batzar honek, aho batez, eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

ERABAKI DU

LEHENA.-**14 /2018** faktura-zerrenda onartzea.

BIGARRENA.- Onarpenaren berri ematea Kontuhartzaitzari.

.....



TOLOSAKO
UDALA

Kontuhartzaileak **15/2018** faktura-zerrenda aurkeztu du, **2.415,80 €**-koa.

Hortaz, zerrenda azterturik, Gobernu Batzar honek, aho batez, eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

ERABAKI DU

LEHENA.-15 /2018 faktura-zerrenda onartzea.

BIGARRENA.- Onarpenaren berri ematea Kontuhartzaileari.

.....

Kontuhartzaileak **16/2018** faktura-zerrenda aurkeztu du, **61.173,59 €**-koa.

Hortaz, zerrenda azterturik, Gobernu Batzar honek, aho batez, eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

ERABAKI DU

LEHENA.-16 /2018 faktura-zerrenda onartzea.

BIGARRENA.- Onarpenaren berri ematea Kontuhartzaileari.

.....

Eta besterik gabe, bilera amaitutzat jo da 09:00etan.

ALKATEA

IDAZKARIA